

# Getxo >MEETING<



## **Abenduak 16** **Zure urteko banakako balantzea egin ezazu. Urratsez urrats.**

2021eko urtea aldizkari batean islatuko duzula imajina ezazu. Ondo maketatutako urtekari moduko bat. Eskuz egin dezakezun aldizkaria, urteko azken #GetxoMEETING saioko parte-hartzaileek egin zuten bezalaxe.

Zein atal gustatuko litzaizuke agertzea? Hona hemen ideia batzuk, baina zure atal propioak asmatu itzazu:

- Marraztutako argazki bat daukan azala, 2021. urtearen erakusgarri dena. Ez da zerbait orokorra izan behar, bizipena baizik. Horren argazki erreala izan zein ez izan.
- Sari bat. Jarrera saritu behar da: jarraitutasunari saria, proaktibitateari saria, moldagarritasunari saria... Zeure burua saritu. Sari hori jasotzen marraz ezazu zeure burua. Saria emateko egon diren arrazoiak azal ditzakezu idatziz.
- Mugarriak, lorpenak. Zure ustez gogoratu beharrekoak diren egitate interesgarriak zerrendatu itzazu. Urtea arinegi igarotzen delako eta batzuetan oharkabean geratzen direlako lorpenak.
- “Ez zen nik espero nuen moduan atera” atala, hala-hola irten diren gaiak azalduz.
- “Ikasketak” atala. Aurreko atalari lotuta. Zer ikasi duzu. Idatzi.
- 2021eko protagonistak. Lagundu zaituzten eta zuk lagundu dituzun pertsonak izendatu. Hilabete hauetan zuretzat garrantzitsuak izan direnak.
- Mantentzea, haztea eta baztertzea: Hurrengo urtean egiten jarraitu nahi dituzun

gauzak. Gehiago edo hobeto egin nahi dituzunak. Utzi nahi dituzunak (bezeroak, proiektuak, zerbitzuak, egiteko moduak)

- “Horri ekin nahi diot”: Urtean zehar atzeratu dituzun gauzak, baina zure ustez bai ala bai egin behar dituzunak.